

2003-02-05
kioskoa

Eneko Bidegain


Erretretaz zer
erran jakin gabe

Frantziako egunkariak goseak bezala zeuden atzo. Editorialak irakurtzean, ageri da guztien asmoa zela erretreten erreforma aipatzea eta Jean-Pierre Raffarin Frantziako Lehen ministroaren hitzaldia aztertzea. Kontatzeko eta aztertzeo gutxirekin gelditu ziren, ordea, egunkariak, gobernuburuaren hitzaldia- ren ondotik. Eta editorialen mamian ageri da horren ondorioa. Gaiari zukurik ezin ateraz ibili ziren.

Raffarin «zuhurtzia» aipatu zuten gehienek, ministroen hitzak errepikatzeaz konformatuz. «Raffarin frantsesak lasaitu nahi ditu, hobeki erreformatzeko» idatzi zuen *Le Parisien*-ek. *Liberation*-en ustez, «beldur» bat badu, hala nola Michel Rocard-ek iragarri zuena: «erretreten dozierrak gobernu asko erorraraz ditzake». Erreformaren mamiaz deus guti baldin bazuten aipatzeko, honen prozeduraren «abiatzea» komentatu zuten ia guztiek, *La Republique des Pyrenees*-k bezala. Eta herenegungo «ariketa nahiko ongi erdietsi» duela dio. Guztiek azpimarratu zuten «pedagogia» eta «esplikazio lana», *Le Figaro*-k bereziki.

«Baina erretorika horrek guztiak zertara eramaten gaitu?» galdetu zuen *Sud Ouest*-ek. «Onenera edo txarrenera. Ikusiko dugu». Epeak motzak direla onartu zuten guztiek. *La Republique des Pyrenees*-rentzat, «motzegiak» dira. *Le Figaro*-k uste du «ordulariaren aurkako lasterketa bat» dela. *Sud Ouest*-ek Raffarin txalotu du «hamar urtez geldirik egon den motore berriz abiarazte-agatik». Eta besteak beste, *Le Figaro*-k uste du «aurrekoek galdu den bora gobernuaren mesedetan izanen dela, bitartean iritzi publikoa ondu» delako...

martintxo



hizpideak

Sozialista Abertzaleen
botoen beharra

EAJk eta EAk Hauteskunde Legean egin asmo duten aldaketa aurrera eramateko Sozialista Abertzaleen botoak derrigorrezko dituzte. Ezker abertzaleko taldea legea aldatzearen alde agertu da, baina negoziatu gabe EAJren eta EAren proposamena bere horretan ez duela onartuko adierazi du. Betiko arazora itzuli gara: Jaurilaritza alderdi abertzaleak ezker abertzaleko parlamentarioen babesaren beharrean, ezker abertzalea negoziatzeko prest, eta Jaurilaritzako alderdiak, Sozialista Abertzaleek indarkeria gaitzetsi ezean, ez dutela negoziatuko.

Ekitaldiz betetako
Korrika Kulturala

Igande honetan zortzi abiatuko da Korrika Kulturala, Donostiako Kursoalen izango den *Hamalau baietz 1965-1975* ikuskizunarekin —hasiera batean behin bakarrik taularatzeko asmoz egina—. Arduradunek ekitaldi ugari antolatu dituzte aurten ere, Korrika 13ren aurreko asteetarako; hitzaldiak, musika jaialdiak, dantza ikuskizunak, antzerkia, zinema, bertso eta pilota jaialdiak... Euskal Herriko leku anitzetara iritsiko dira ekitaldiak; izan ere, Korrika Kulturala herrialde guztietara iristen den ekimen bakane-takoa baita.



Eusko Legebiltzarreko Mahaiaren atzoko bilera.

Hugo Chavez, Venezuelako lehendakaria.



Oteiza Fundazioaren bilera

Gaur bilduko dira Oteiza Fundazioa lehen aldiz Agoizko epaitegiak Carlos Catalanen izendapenaren inguruan epaia eman zuenetik. Hilabete honetan ikusitakoagatik, sententziak ez du bi aldeen arteko jarrerak hurbiltzeko balio izan, eta Fundazioaren hausturak bere horretan dirau. Azken liskarra New Yorkeko Marlborough galeriak apirilean zabalduko duen Oteizaren erakusketaren harira piztu da, Fundazioko presidente Juan Huartek estu hartu baitu galeria artistaren obrak saltzeko asmoari utz diezaion. Oteizaren obraren nazioarteko hedapen komertziala izango da Fundazioak aztertuko duen gaietako bat, gaur. Bezperan, artistaren ordezkari Catalanek gogor erantzun zion Huarteri, eta azken urteetako obrak saltzeko Oteizaren «askatasuna» defenditu zuen.

Chavez, «erasoan»

Venezuelako presidente Hugo Chavezek «defendatzeari utzi eta oposizioari aurre egiteko garaia» dela adierazi zuen atzo. Chavezen hitzak oposizioak duela bi hilabete hasitako greba politikoaren moteltzearekin batera etorri dira. Lan-uztearen bidez grebalariek kargua utzarazi nahi zioten presidenteari, zeinak botoen %58 bereganatu zituen 1998. urtean egindako hauteskundeetan. Venezuelako Gobernuak, bestalde, ez ditu baliagarritzat jo oposizioak Chavez presidentea kargugabetezko asmoz aurkeztutako sinadura bilketa. Ekimenak balio izateko sinadurak Gobernuaren erakunde batek egiaztatu behar dituela adierazi du Jose Vicente Rangel presidenteordeak. Oposizioak negoziazio mahaia utziko duen ala ez jakinaraziko du gaur.

Egunkaria

Ohorezko Lehendakaria: Martin Ugalde

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria: Joan Mari Torrealdai

Kontseilari Ordezkarria: Iñaki Uribe

Zuzendaria: Martxelo Otamendi

Gerentea: Begoña Zubelzu

Publizitatea: Igor Sota

Egoitza Nagusia: Martin Ugalde Kultur Parkea 20140 Andoain Tel.: 943300222
Erredakzio faxa: 943300255-943590354 Publizitateko faxa: 943300707

Webgunea: www.egunkaria.com

Posta elektronikoa: egunkaria@egunkaria.com

Publizitatea: publi@egunkaria.com

Batzorde Parekidea: 72564 E Lege Gordailua: SS 800/90 I ISSN 1134-640X
OJDK IKUSKATURIKO HEDAPENAORDEZKARITZAK ■ Araba: San Antonio, 20-1 ezker. 01005 Gasteiz
Tel.: 945233872 Faxa: 945233873 Publizitatea: Tel.: 945131965Nafarroa: Irabxe Monasterioa, 45-13. esk. (Irrintzi dorrea) 31011 Iruñea
Tel.: 948178073-79 Faxa: 948178077 Tel.: Publizitatea: 948176686Bizkaia: Egia Jenerala, 3-behea. 48010 Bilbo Tel.: 944104046 Faxa: 944103715
Tel.: Publizitate Orokorra: 944701199-80 Publizitate Lokala: 944701114Lapurdi, Nafarroa Beherea, Zuberoa: Pelletier 35,
64100 Baiona Tel.: 559593575 Faxa: 559257511